

## Zer-nori-nork II

Objektu zuzena (**zer**) singularra edo plurala denean.

Adibidea:

- Objektu zuzena singularra:

**Nik Joni elur bola bat jaurti diot.**

- Objektu zuzena plurala:

**Guk Zuei elur bola batzuk jaurti dizkizuegu.**

Aukera ezazu esaldiari dagokion adizkia:

1. Eiderrek zuri liburuxka interesgarri bat oparitu \_\_\_\_\_ .
2. Zuek niri berri txarra eman \_\_\_\_\_ .
3. Gaztetxoek lan horiek ekarri \_\_\_\_\_ guri.
4. Zuei sortu den arazoa azaldu \_\_\_\_\_ nik.
5. Jabierrek atzerapenaren zergatia adierazi \_\_\_\_\_ arduradunari.
6. Ahizpak zuri praka berriak utzi \_\_\_\_\_ jaira joan zaitezen.
7. Irristalekuan bi umek kolpe ederra eman \_\_\_\_\_ gazte bati.
8. Horiek eserleku onak kendu \_\_\_\_\_ guri.
9. Amaiaren katuak atzaparka egin \_\_\_\_\_ niri.
10. Nik bizikleta zaharra salduko \_\_\_\_\_ Zainabi.
11. Berak ehun euro emango \_\_\_\_\_ niri bizikletaren truke.
12. Alaznek eta Garbiñek bultza egin \_\_\_\_\_ Gorkari ilaran.
13. Txakur horrek haginka egin \_\_\_\_\_ ume horiei.
14. Postariek eskutitzak sartu \_\_\_\_\_ zuri postontzian.
15. Amamak ez \_\_\_\_\_ ezertxo ere aditzen bilobei.